

41 egunez egun

2012ko iraila

Beasaingo udal aldizkaria

beasaingoin



Beasaingo udala



Usurbe antzokia, eskaintza berrituta

Gerrako fusilatuen omenez eskultura bat egingo dute

2 iritzia 3 gizartea 4-5 parte-hartzea 6 legealdiko plana 7 elkarriketa: gerrako fusilatuak gogoratzeko taldea 8 igartza literatur beka 9 usurbe antzokia 10-11 laburrak 12 agenda



koldo agirre • Alkatearen txokoa

Oporren bueltan

antzokira joan daitezten, abonua sistema jarriko dugu martxan.

Antzokiko kudeaketa berriaren informazioa emateaz gain, aldizkarian, dagoeneko martxan diren edo/eta martxan jarriko diren hainbat parte-hartze prozesuren berri emango dugu. Eta parte hartzerantz animatu nahi zaituztegu, denon intereseko gaiak baitira hauek. Udara aurretik egin genuen legealdiko planaren berri ere izango duzue.

Beste gai interesgarri bat, fusilatuenak dugu. Herritar talde batek bultzaturiko lanari esker, ongi merezitako omenaldi xumea egingo baitzaie fusilatuenak izan zirenei. Fusilatuenak izan ziren lekuan bertan oroigarria jarriko da.

Bestalde, etxetz etxeko laguntza zerbitzuaren berri ere emango da; ezinduei bizitza kalitatea hobetzen dien zerbitzua, hain zuzen ere. Agendarekin batera, hainbat ikastarotan ikasturtea has-tekoa denez, matrikulazio kanpainen berri ere emango da.

Con la llegada de septiembre, ya está en marcha el nuevo curso. Curso que hay que afrontar con ilusión, para poder trabajar bien y con ánimo durante todo el año. Además, a final de mes, contaremos con una novedad en el municipio. Vamos a mejorar la oferta del salón Usurbe, ofertando abonos, para animar a los vecinos a acudir al teatro.

En la revista, también daremos cuenta de diversos procesos de participación ciudadana que ya están en marcha o arrancarán en breve. Queremos animaros a tomar parte, pues son temas de interés general. También seréis informados del plan de legislatura elaborado antes de la llegada del verano. Otro tema interesante es el relacionado con los fusilamientos. Gracias al trabajo impulsado por un grupo de vecinos, se les tributará un humilde homenaje a los fusilados. Se colocará un recordatorio en el lugar donde tuvieron lugar los fusilamientos.

Irailarekin batera, ikasturte berria martxan dugu denok. Ilusioz hartu behar dugun ikasturtea, urtea amaitu bitartean gauzak ongi eta animoso egin ahal izateko.

Irailaren bukaerarekin batera gainera, ikusi berri duzuen berrikuntza bat izango dugu herrian: Antzokiaren eskaintza hobetzera gatoz, eta herritarrak

inkesta Tabernetako terrazak arautu beharrik ikusten al duzu?



Nerea Manzidor

Terrazek bizia ematen diete herriari, asko gustatzen zaizkit, baina arautu egin behar dira. Oinezkoek ere eskubideak izan behar dituzte eta zenbait lekutan, pasatzeko zailtasunak izaten dira. Terraza batzuk leku publiko zati handiak jaten dituzte, eta arautzea beharrezkoa iruditzen zait.



Veronica Varela

Había necesidad de regularizar. Seguramente no nos gustará, está claro; pero se estaba desbordando un poco el tema. Hemos participado en las reuniones. Por lo menos, se nos ha escuchado, hemos hecho nuestras ideas, pero hasta que salga la ordenanza y nos digan lo que hay...



Izaskun Egiguren

Ez dakit zein punturaino, baina zerbait arautzea ondo iruditzen zait. Egia da terrazek bizia ematen dietela herriari, baina herria denona da eta denon ikuspuntua hartu behar da kontuan. Tabernarekin elkartu da udala eta oso ondo iruditzen zait bide hori, denon iritziak biltzea garrantzitsua delako.

Etxez etxe laguntza banatzen

Beasaingo 80 lagunei eskaintzen dio etxez etxeko laguntza zerbitzua Goxara S.L. enpresak; 22 langile ditu lan horretarako.

Ezintasunen bat eduki, eta norbere burua eta etxea zaintzeko gai ez diren hirugarren adinekoentzat sortutako zerbitzua da etxez etxeko laguntza. Zerbitzu horri esker, inora joan beharrik gabe, nor bere etxean, egoera eta baldintza onetan bizi daiteke. Beasaingo kasuan, Goxara SL enpresak (Amaia Aialak, Goiatz Estensorok eta Begoña Lasak) kudeatzen du etxez etxeko laguntza. Zerbitzu hori behar duenak, Udaleko Ongizate Sailera jo behar du, «bertan baloratzen dute pertsona bakoitzak zein laguntza mota behar duen, eta zerbitzu horregatik zerbaitekin behar duen».

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren barruan, arreta pertsonala eta etxeko

garbiketak sartzen dira. Egunean gehienez ere, hiru orduko zerbitzua izan dezake erabiltzaile bakoitzak. «Erabiltzaile batzuk arreta pertsonala bakarrik behar dute, beste batzuk etxeko garbiketa, eta batzuk biak konbinatuta. Beharren arabera ere aldatu daiteke», dio Goiatz Estensorok. Egun bateko adibidea jarri du beasaindarrak: «Arreta pertsonala eta etxeko garbiketa zerbitzua konbinatzen dutenak, adibidez, goizean prestatu, jantzi, duxatu... eta gosaria ematen diegu; eguerdian bazkaria prestatu eta eman, eta gauean, afaria prestatu edo ohean sartu, pardela aldatu...». Estensorok Ongizate Sailera joatea gomendatzen du, «bakoitzari ondoen egokitzen zaion zerbitzua erabakitzeko».

El servicio de asistencia en el hogar, ayuda a las personas que tienen alguna incapacidad, o no pueden valerse por sí mismas en su propia casa. En el caso de Beasain, es la empresa Goxara SL la que gestiona dicho servicio. Según Goiatz Estensoro, una de las responsables de la empresa, para recibir este servicio hay que acudir al ayuntamiento, ya que son los Servicios Sociales los que estudian cada caso y valoran qué tipo de servicio se le concederá.

•• Ongizate Sailak erabakitzen du erabiltzaile bakoitzak zein laguntza eta zerbitzu mota behar duen ••



»» Alberto Gonzalez, Anastasia Ramajo eta Sole Prieto.

Anastasia Ramajo gaixo dago, eta ez da gauza bere burua zaindu eta etxeko lanak egiteko. Duela lau urte, Udaleko Ongizate Sailera joan zen, eta orduetik, astelehenetik ostiralera, egunean hiru orduetan, Sole Prieto joaten zaio. Goizean bi ordu eta arratsaldean beste ordubete. «Otorduak prestatzen dizkigu, etxeko lanak egiten ditu, prestatzen eta garbitzen laguntzen dit... Etoritzeko desiatzen egoten naiz. Etxekoa da dagoeneko. Oso gustura gaude Sole-rekin eta zerbitzuarekin. Laguntza handia da, eta laguntza honi esker, nire etxean bizi naiteke. Oso eskertuta nago», dio Anastasia Ramajok.



»» Iñaki Auzmendi, Tere Alonso eta Kontxi Eskisabel.

Kontxi Eskisabel e Iñaki Auzmendi vivían en Ordizia, en un cuarto piso, y sin ascensor. Compraron otra casa en Beasain, con ascensor. Además de cambiar de pueblo, llegó una persona que les cambió la vida: Tere Alonso. Suele ir todas la mañanas, una hora, a ayudarle a prepararse a Kontxi. Está muy contenta con el servicio. «Que no me falte mi Tere! Qué hace Tere? Lo primero de todo, ser amable, es lo que más se aprecia en una persona que viene así. Yo creo que hace más que de lo que debe, porque es maravillosa, en todo. Cariñosa, trabajadora... Me ayuda mucho. Suelo estar deseando de que llegue la mañana».



Herriko tabernariekin batera, terrazan ordenantza erabakitzeko egindako hiru batzarretako bat, Igartza jauregian.

Parte hartzearen bidean sakontzen

Igartzako monumentu multzoaren erabileraren oinarriak eta tabernetako terrazetako ordenantza parte hartze prozesuekin osatu ditu udalak; kiroldegiko musika lokalen prozesua hasiko dute laster.

Beasaingo Udalak parte hartzean oinarrituta martxan jarri duen lan egiteko modu berria ari da aurreneko pausoak ematen. Dagoeneko hiruzpalau prozesu aurrera eraman dituzte, eta urtea bukatzerako, beste hiru jarriko dituzte martxan. Udal ordezkariak gustura daude orain arteko prozesuek emandako emaitzekin, parte hartzea beraiek nahi bezain handia izan ez bada ere, denetan jendearen jarrera ona izan delako eta ideia interesgarriak sortu direlako.

Zezilia Herrador parte hartze arloaz arduratzen den zinegotziak azaldu duenez, prozesu mota hauek «oraindik ere berriak» dira herritarrentzat. Baina orain arte «egin duten ahalegina esker-

tu» nahi die parte hartu duten herritarrei, orain arteko bileretan, «proposamen eta ideia interesgarriak» jaso baitituzte.

Herritarrek prozesu horietan parte hartzeko ohitura «pixkanaka» hartzen joango direla uste du. «Herritar askok pentsatzen du, 'baina nik zer esango dut? zer daukat nik aportatzeko?' Parte hartzea bera ere kosta egiten da. Baina behin beldur hori gaingiduta, eta parte hartzen dutenean, gustura ateratzen dira, ikusten dutelako beraien proposamenak norbaitek entzuten dituela, nonbait jasotzen direla eta kontuan hartzen direla gero udalak hartuko dituen erabakietan». Horrela, geroko prozesuetan parte hartzeko ere gehiago motibatuko

direla uste du. Gainera, orain arte «udala oso instituzionalizatuta» egon dela uste du, eta prozesu hauek, «herritarrak horreraino iritsi daitezkeela ikustarazteko modu bat» era badira Herradorren ustetan. Badakite egun batetik bestera ez dutela «herri osoa auzolanean» jarriko, baina beraien ustean oso interesgarria da «horrelako gune batzuk martxan jartzea, non guk motore lana eginda dinamika horiek sortuko diren, eta jendea hasiko den bere kasa ere aktibatzen eta gauza ezberdinak egiten». Izan ere, udalak erabaki guztiak bere aldetik hartu beharrean, auzoetan edo arlo ezberdinetako jendearekin lan eginda, herritarren benetako beharrak gertutik eza-gutzeko aukera dute.

El nuevo método de trabajo instaurado por el Ayuntamiento de Beasain, basado en la participación ciudadana, está dando sus primeros pasos. Ya se han sacado adelante tres o cuatro procesos y, de aquí a finales de año, se pondrán en marcha otros tres. Los representantes

•• El nuevo método de trabajo instaurado por el Ayuntamiento, basado en la participación, está dando sus primeros pasos ••

municipales están contentos con el resultado: reconocen que el número de participantes no ha sido el deseado, pero destacan que la actitud de la gente ha sido positiva y se han presentado ideas interesantes. El proceso desarrollado para definir el uso del conjunto monu-

Orain arteko saioak

Igartzako monumentu multzoaren erabileraren oinarriak finkatzeko helburuarekin udalak egin duen parte hartze prozesua oso emankorra izan da. Ekintza ugari proposatu dituzte bertan parte hartu duten herritarrek eta eragileek. Udalak guztiak batera martxan jartzea oso zaila denez, eragile guztien artean, lehenetsiak adostu dituzte. Ildo horretan, zortzi lehentasun zehaztu dituzte: epe ertain/luzera begirako plangintza sortu; Lan Batzorde iraunkorra sortu; berezko ezaugarriak bultzatzeko jarduerak antolatu; kultur jarduerak, ekintzak eta sormena bideratu; herritarrekiko komunikazioa planifikatu; Igartzaren plan turistikoa idatzi; Euskal Herriko eta

•• Orain arteko bileretan proposamen eta ideia interesgarriak jaso ditugu ••

Goierriko beste gune interesgarriekin harremanak landu; eta turismoa jasotzeko prestatu..

Tabernetako terrazan ordenantza ere osatzen ari dira udala eta tabernariak. Bi bilera egin dituzte dagoeneko, eta udal teknikariak ordenantza idazten ari dira bertan jasotako iritziak kontuan hartuta. Hirugarren bileran ordenantza aurkeztuko diete tabernariei, eta ekarpenak egiteko aukera izango dute.

Udazkenean, beste hiru saio egingo dituzte herritarrekin. Batetik, kiroldegiko musika lokalen araudia osatuko dute, gazteekin batera. Bestetik, EBPN Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia berritzeo prozesua abiaraziko dute, euskararen arloan herrian dauden beharrak aztertzeo. Eta azkenik, gazte lokalen edo txokoen inguruko ordenantza bat ere atera nahi du udalak, hori ere, gazteekin elkarlanean osatuta.

mental de Igartza ha resultado ser muy fructífero. Los vecinos y los agentes sociales han propuesto muchas acciones y se ha concretado ocho prioridades: redactar un plan a medio y largo plazo, crear un grupo de trabajo, organizar actividades para reforzar la naturaleza

Kiroldegiko musika lokalen araudia egiteko prozesua

Udalak kiroldegian dauden musika lokalak berritzeko asmoa du, eta behin egokitzapenak egindakotan, lokal horien funtzionamendua arautu nahi du. Ez da udalak berak ezarritako araudi bat izango, ordea. Izan ere, gazteekin eta lokal horiek erabiltzen dituzten taldeekin batera adostu eta osatu nahi dute araudi hori. Herradorrek azaldu duenez, «guk marko orokor bat jarriko dugu, baina araudia beraien artean adostea nahi dugu, beraien dakitelako eguneroko erabileran zein arazo sortzen diren. Eta bide batez, gazteak inplikatu nahi ditugu». Aurreneko bilera bat egin badute ere, hil honetatik aurrera hasiko dira proposamenak jasotzen.

El Ayuntamiento quiere reformar los locales para los grupos de música que hay en el polideportivo. Pero para entonces, quieren establecer una normativa para el uso de dichos locales. No será una normativa impuesta por el ayuntamiento, si no que se quiere hacer con la participación de los jóvenes, para que sean ellos los que propongan y acuerden las normas para el uso de los locales. La primera reunión la hicieron en julio, pero será a partir de este mes cuando empiecen a analizar las propuestas.

Udal langileak ere parte hartzean hezteko saioa

Udal gobernu taldea parte hartzearen inguruan bultzatzen ari den egiteko filosofia berria, pixkanaka ari da bere tokia egiten. Hala ere, parte hartze politikak eta batzarrak berriak dira, bai herritarrentzat, bai politikarientzat eta baita udal langileentzat ere. Hain zuzen ere, azken horiek parte hartze prozesuetan hezteko, jardunaldi bat egingo dute udazkenean. Zezilia Herradorrek azaldu duenez, «formakuntza moduan emango zaie, eta langileez gain, politikariak ere gonbidatuko ditugu».

La filosofía y el modo de trabajar basados en la participación ciudadana, van tomando forma y haciéndose su propio sitio poco a poco. Pero todavía estas formas de participar son nuevas, tanto para la ciudadanía como para los políticos o los trabajadores municipales. En otoño, se celebrarán unas sesiones dirigidas a estos últimos, a modo de formación, para que puedan familiarizarse con el nuevo funcionamiento. Los políticos también estarán invitados a dichas sesiones.

del espacio, impulsar la organización de actos y la creatividad, planificar la comunicación, redactar el plan turístico de Igartza, promover el trabajo en común con otros puntos de interés de Goierri y Euskal Herria y prepararse para acoger turistas. Los hosteleros y el Ayun-

tamiento están preparando también la ordenanza que regulará las terrazas. En otoño se pondrán en marcha otros procesos, sobre el uso de los locales de música del polideportivo, sobre el Plan General de Promoción del Uso del Euskera (EBPN) y sobre los locales de jóvenes.

Legealdiko Plana bukatuta

Udal gobernu taldeak irailean aurkeztuko du datozen hiru urteetan garatuko duen Legealdiko Plana.

Udal gobernu taldea, herritarrekin batera, Legealdirako Plana egin ari da azken hiru hilabeteetan. Herritar askok parte hartu dute prozesu horretan, eta Legealdiko Planaren prozesua burutzeko batzarretan parte hartu dutenei, eskerrik beroenak eman nahi dizkie udalak.

Era horretan, prozesu partehartzaileari buruzko balorazio «positiboa» egin du. «Lehen aldiz, udalak saiakera egin duelako ahalik eta herritar gehienek, herriko edozein gairen inguruko proposamenak egin eta udal gobernu taldearen proposamenak herritarrekin partekatze».

Gobernu taldeko kideek azaldu dutenez, batzarretan, «zuzeneko harremana errespetu eta naturaltasun osoz» eman da udaleko ordezkarien eta herritarren artean, «egoera eta pentsaera desberdinak dituzten pertsonen artean».

Batzarretan parte hartu duten herritarren prestutasuna txalotu dute, nahiz eta udal gobernu taldeak onartzen duen «prozesuaren antolaketan akatsak» ere izan direla. Hurrengo prozesuetarako antolaketa egokiagoa izan dadin neurriak hartzeko prestutasuna agertu du udal gobernu taldeak.



Irailean aurkeztuko du Legealdiko Planaren emaitza. Herritarren partehartzea udal gobernu taldeak uste baino txikiagoa izan denez, «argi eta garbi esan behar dugu prozesu horretatik ateratzen den Legealdiko Plana ez dela beasaindarren gehiengo batek eztabaidatutako, partekatutako eta adostutako plan bat. Hala ere, parte hartu dutenei gure errespetu guztia adieraziz, garbi utzi nahi dugu jasotako proposamenak udal gobernu talde honen legealdirako planean txertatzeko ahalegin guztia egingo dugula», aitortu du udal gobernu taldeak. Beraz, «Plan hau aurrera ateratzeko beharrezko adostasunak bilzen» saiatuko direla azaldu dute.

Herritarrek betetako inkestetako proposamenekin ere gauza bera egiteko asmoa dauka udal gobernu taldeak,

«inkestaren erantzuna oparoa» izan dela azpimarratuz.

Legealdiko Plana burutzeko egin diren batzarren aktak eta inkestaren erantzunetatik eratorritako ondorioak, herritarren eskuetan jarriko ditu.

Parte hartzea bultzatuz

Bilduk eta Aralarrek osatzen duten udal gobernu taldeak, partehartzearen ildotik jarraitzeko asmoa dauka, eta «udal gestioa planteatzeko moduaren aurreko borondatea argi eta garbi utzi nahi du; herritarren parte hartze zuzena bultzatzen jarraituko dugu, herritarrek edozein gairen inguruan bere ekarpenak egiteko gai ikusten ditugulako, eta batez ere, udal gestioan herritarrek esku hartze zuzena izan behar dutela tinkotasunez sinesten dugulako».

En los últimos tres meses, el gobierno municipal, junto a los vecinos, ha estado realizando el Plan de Legislatura. Han participado muchos vecinos en la iniciativa y el gobierno municipal ha querido agradecer a todos su participación.

Según el gobierno municipal, «el ayuntamiento ha intentado que la máxima cantidad de vecinos posible realizase sus aportaciones. A su vez, ha intentado compartir sus propuestas». Han aplaudido la honradez y predisposición de los vecinos, aunque admiten que en la organización del proceso ha habido «errores» que en futuros procesos intentarán mejorar. La participación ha sido

●● El ayuntamiento ha intentado que la máxima cantidad de vecinos posible realizase sus propuestas, y aplaude la honradez y la predisposición de los vecinos que han participado ●●

menor de la que esperaban. Por ello, han declarado «alto y claro» que el plan que ha resultado de ese proceso «no es un plan que haya sido debatido, compartido y decidido por la mayoría de los vecinos». La respuesta a las encuestas, por su lado, ha sido numerosa. Pondrán en manos de los vecinos las actas de las asambleas y las conclusiones derivadas de las encuestas.

Desde el gobierno municipal se han reafirmado en «la voluntad mostrada con la manera de plantear la gestión del ayuntamiento» y han afirmado que ven a los vecinos muy capaces de realizar aportaciones en torno a cualquier tema.

Gerrako fusilatuak gogoratzeko taldea

“Hemen gertatu zena ezin dugu ahaztu, eta oroigarriren bat jarri beharra dago”

El pasado 27 de julio se cumplió el 76 aniversario de la llegada de las tropas franquistas a Beasain. Esa noche los alzados fusilaron a 32 personas, la mayoría de ellas vecinas de Beasain. Un grupo de personas del pueblo se está reuniendo para recuperar su memoria; para ello quieren poner una estatua en honor a esas 32 personas.

Nolatan sortu duzue talde hau? Zergatik hasi zineten elkartzean?

Miguel Angel: Kuadrillan eta poteo giroan askotan hitz egin dugu gai honetaz, eta horren inguruan zerbeit egin behar zela ikusten genuen.

Txani: Gehienak lagunak gara. Alberto eta Miguel Angel hasi ziren kontu hau mugitzen, eta besteak pixkanaka batzen joan gara. Baina esan behar da taldea irekia dela, eta nahi duen guztia etor daitekeela.

2006an zazpi urte egin zitzaizen fusilatuiei omenaldi bat udaletxean.

Miguel Angel: Bai, ni neu ere han izan nintzen, eta ondo egon zen, baina horretan gelditu zen. Beste zerbeit falta zela ikusten genuen. Zerbeit iraunkorra jarri nahi genuen fusilamenduak izandako tokian. Hasieran ez genekien garbi zer izango zen, baina Jokin Telleria artistarekin hitz egin genuenean, ideia forma hartzen hasi zen.

Urte askoan ixilpean gorde den kontua izan da; «ahoan kremailera jarrita» gorde dela esan zenuten aurkezpenean.

Miguel Angel: Horrela izan da. Gogoan dut gure amak eta, etxean beti kontatu izan dituztela kontu horiek, baina etxetik kanpo ez zen horretaz hitz egiten. Pasatako kontuak direla, ahaztu egin behar dela... Kremailera, azken finean. Baina ez da horrela. Gauza horiek ezin dira horrela ahaztu.

Alberto: Ekimen hau, batez ere, familiartekoentzat egin dugu. Haien senideak desagertu egin ziren, eta ez dago haien arrastorik; inork ez daki gorpu horiek non dauden lurperatuta. Senideentzako



Txani Lasa, Alberto Alonso, Karlos Begue eta Miguel Angel Ruiz de Gauna

hori oso gogorra da. Ez dute lore bat jartzeko edo negar egiteko tokirik ere. Gehienbat horregatik egin dugu. Eta hemen duela 76 urte gertatu zena, Beasaingo historiaren bi egunik beltzenak izan zirenak oroitzeko. Hori ezin da ahaztu, eta zer edo zer jarri beharra dago, derrigorrez. Jende gazteak, kanpokoek eta denok ikusteko zerbeit.

Senide batzuekin egon zarete. Zer esaten dizute?

Miguel Angel: Hitz egin dugunek esan digute ondo iruditu zaiela, eta pozik daude, errekonozimendu bat delako. Askok eta asko hilda daude dagoeneko. Urte asko pasa dira eta badakigu oso berandu gabiltzala. Baina hobe berandu egitea, ezer ez egitea baino.

•• «Nadie sabe donde están enterrados los cuerpos; las familias no tienen un sitio donde llorar o dejar flores; esto lo hacemos por ellas» ••

Txani: Tristeena da senide horietako asko hil direla ezer ikusi gabe, inolako errekonozimendurik jaso gabe. Kontu honekin espero dugu jendea animatzen hastea, eta kontu gehiago ere argitzea, denen artean historia hori osatzea.

Kokapenarekin ere gustura zaudete.

Miguel Angel: Lekua aproposa da, batek toki polita delako eta historiarekin lotura duelako. Baina kontua da hemen bertan gertatu zela dena. Batzuek toki bat, eta besteek bestea aipatzen dute, baina dena gune honetan izan zen.

Alberto: Senideek beraiantzako toki bat izatea, eta nonbait beraien senitartekoen izenak idatzita ikustea, hori oso garrantzitsua da.

Herritik sortutako ekimen bat izatea nahi duzuela esan duzue. Zergatik?

Txani: Hasieratik garbi genuen herritik sortutako zerbeit izan behar zuela. Eta bono-laguntzena ere, herritarrak honen parte sentitzeko modu bat da. Jendeak ondo hartu du eta baikor gaude.

Miguel Angel: Zati handi bat udaletxeak jarriko du, baina beste zati bat herritarrak izatea nahi genuen. Denok izate gure aletxo jartzeko aukera hori.

Igartza sariaren fruitu emankorrak

Idazle berrientzat erreferentzia bilakatu da Beasaingo Igartza literatur sorkuntzako beka. XV. edizioa izango du aurtengoa.

Beasaingo Udalak, CAF enpresarekin eta Elkar argitaletxearekin elkarlanean, Igartza literatur beka-ren XV. edizioaren sari banaketa, irailaren 13an, 19:00etan, egingo du Igartzan. Gerora ezagun egin diren dozena bat idazle gazteren lanak argitaratu dituzte beka horri esker. Igartzako ekitaldian, XV. edizioan sarituko duten proiektuaz gain, XIII. edizioko Garazi Kamio andoaindarraren *Beste norbaiten zapatak* liburua aurkeztu dute; eta XIV. edizioan saria jaso zuen Goiatz Labandibar oiartzuarra ere, laster bukatuko du bere lana.

Igartza saria 1993. urtean antolatuta zuten aurrenekoak, idazle berriak sortzea helburu hartuta. Lehenengo urteetan, misteriozko eta abenturazko literatura-saria izan zen. Formatu hark ez zuen, ordea, arrakasta handiegirik izan. Lan bakarra saritu zen: Jon Arretxeren *Tubabu*. Jon Arretxeren lehenengo liburua izan zen Xabier Mendigurenek gogoraraz duenez.

Bi urtez saririk eman gabe egon eta gero, literatur sariketaren formula alde batera uztea erabaki zuten, eta 1998an literatur sorkuntzarako beka sortu zuten. Elkar argitaletxeko Xabier Mendigurenek azaldu duenez, «zerbait berritzailea izatea nahi genuen, sariak oihartzuna eduki zezan, idazle berriak sortu zi-



Goiatz Labandibar oiartzuarra.

tzan, eta euskal kultura aberastu zezan. Euskal literaturan ez zegoen formula bat, beka sistema sortzea erabaki genuen: idazle berrien eta gazteen literatur lanen proiektuak, laginak, saritzen hasi ziren. Lana bukatzeko urtebeteko epea izaten dute idazleek». Sei mila euro jasotzen ditu idazleak: erdia saria jasotzerakoan, eta beste erdia, lana bukatutakoan. Ane Barandiaran udal teknikariak azaldu duenez, formula hark

Saritutako lanak

Jon Arretxe: *Tubabu*.

Julen Gabiria: *Conmemaragure bihotzetan*.

Xabier Etxeberria: *Egun denak ez dira berdinak*.

Jasone Osoro: *Korapiloak*.

Fernando Morillo:

Ortzadarra sutan.

Unai Elorriaga: *Van't Hoffen ilea*.

Julen Gabiria: *Han goitik itsasoa ikusten da*.

Asel Luzarraga: *Karonte*.

Karmele Jaio: *Amaren eskuak*.

Peru Magdalena: *Lile*.

Uxue Alberdi: *Aulki bat elurretan*.

Jon Martin: *Ero*.

Katixa Agirre: *Habitat*.

Irati Jimenez: *Nora ez dakizun hori*.

Uxue Apaolaza: *Mea Culpa*.

Garazi Kamio: *Beste norbaiten zapatak*.

«arrakasta» izan du eta «urtero, dozena bat lan edo aurkezten dira». Gaur egungo euskal literaturan erreferente bihurtu diren hainbat idazleek, Igartza bekari esker egin zituzten lehenengo pausoak. «Igartzak, jende berria deskubritzen eta bide bat eginda edo egiten ari zirenei beste bultzada bat lagundu du», zehaztu du Mendigurenek. Igartza Saria jaso duten idazleen zerrenda begiratu besterik ez dago.

Durante dos años no se entregó ningún premio, y en el año 1998 se presentó la beca para la creación literaria. Según explica Xabier Mendiguren, de la editorial Elkar, «queríamos que fuera algo innovador y creamos una fórmula que no existía en la literatura vasca: un sistema de becas». Empezaron a premiar proyectos literarios de nuevos y jóvenes escritores. Los premiados reciben 6.000 euros y disponen de un año para terminar su trabajo. La mitad al recibir el premio, y la otra mitad, al terminar su trabajo. La nueva fórmula sí tuvo éxito.

El ayuntamiento de Beasain, junto a la empresa CAF y la editorial Elkar, entregará los premios de la XV. Igartza Literatur Beka el próximo 13 de septiembre, a las 19:00 en el palacio Igartza. Este año, a parte del proyecto premiado, ha sido presentado el libro *Beste norbaiten zapatak*, de Garazi Kamio. A su vez, Goiatz Labandibar, la que fuera premiada el pasado año, completará pronto su trabajo.

Marcando como objetivo ayudar a los nuevos escritores, en 1993 se dieron los primeros premios Igartza, a trabajos

•• Gaur egungo euskal literaturaren erreferente bihurtu diren hainbat idazleek Igartza bekari esker egin zituzten lehen pausoak ••

de literatura de misterio o de aventuras. Ese formato no tuvo mucho éxito. Se premio un sólo trabajo: *Tubabu*, de Jon Arretxe.



Antzokiaren eskaintza hobetuz

Irailtik aurrera HTK enpresak kudeatuko du Usurbe antzokia; udalarekin eta Goieniz zineklubarekin elkarlanean ariko dira.

Usurbe antzokiko zinema aretoa HTK enpresak kudeatuko du hil honetatik aurrera. Orain arte zerbitzu hori ematen zuen Kruz Mari Ansoalde erretiratu egin da, eta udalak, bide berri bat ireki nahi izan du zinearen kudeaketan. Udal teknikariek eta Goieniz zineklubak ere pisu berezia izango dute hemendik aurrera, programazioa egiteko garaian. Horrela, antzokiaren eskaintza eta zinearekiko zaletasuna sendotu nahi ditu udalak.

Hala, hiru hankako batzorde bat osatuko dute antzokia kudeatzeko, HTK enpresaren, udalaren eta Goieniz zineklubaren artean. Izan ere, «elkarrekin lan eginda, emaitza hobek» lortuko dituztela uste dute Gurutze Sukia eta Mikel

Zumarraga udal teknikariek. Hala, «jauzi kualitatibo bat» eman nahi dutela azaldu dute udal teknikariek. «Lehen enpresak bakarrik erabakitzen zuen zein pelikula ekarri behar zuen; orain, denen artean hartuko ditugu erabakiak». Zinemara doan jende kopurua gero eta txikiagoa da; horregatik, «eskaintza eta

•• **Urritik aurrera, hilabeteko abonua salduko dira 12 euroan, eta hilabeteko zine emanaldi guztiak ikusteko aukera emango du** ••

programazioa indartu» egin nahi dute. Zinema komertziala, euskal zinea eta zine alternatiboa uztartuko dituzte.

Euskaraz egiten diren film guztiak Beasaindik pasatzea da helburuetako bat. Horrekin batera, jatorrizko bertsoiak indartu nahi dituzte, euskarazko azpitoluekin. Umeen programazioa ere kontuan izango dute, eta batez ere, «euskaraz sortutako filmak» ekartzen saiatuko direla diote. Aurten euskaraz ez da produkzio askorik izan, eta gaztelaniazko filmeekin osatu dute programazioa.

Antzokiko eskaintzak izango duen beste aldaketetako bat, filmeak aurrez iragarriko dituztela izango da. «Hilero emango ditugun filmeekin eskuorri bat aterako dugu, jendeak aurrez jakin dezan zein filme ikusi ahal izango duen». Abonu sistema bat ere jarri nahi dute; zikloez gain, hileroko abonua aterako dituzte, 12 euroan.

A partir de este mes, la empresa HTK gestionará la programación de cine de Usurbe, ya que Cruz Mari Ansoarena, quien dirigía dicho servicio, se ha retirado. El ayuntamiento quiere abrir un nuevo ciclo en la gestión de la sala; para ello, se creará una comisión en la que participarán, además de la empresa

HTK, los técnicos del ayuntamiento y el cineclub Goieniz. Gurutze Sukia y Mikel Zumarraga, técnicos de cultura, creen que trabajar en grupo dará mejores resultados, y quieren reforzar la oferta, combinando el cine comercial con el cine vasco y el cine alternativo. También se tendrá en cuenta el cine infantil.

Otro de los cambios, será que el ayuntamiento informará a los vecinos sobre la programación del cine, mediante un folleto de publicación mensual. También pondrán a la venta bonos mensuales, además de los del cineclub, con los que se podrán ver todas las películas del mes, por 12 euros.

Urbietako etxeko ikastaro eskaintza

Urbietako arte plastikoetako zentroak lau ikastaro eskainiko ditu urriaren 1etik aurrera; izena eman daiteke dagoeneko.

Urriaren 1etik aurrera hasiko dira Urbietako arte plastikoetako zentroko ikastaroak. Lau antolatutako dituzte aurten: balleta, argazkigintza, marrazketa eta pintura, eta zeramika eta esmaltaketa. Ikastaro horietan izena emateko udal-etxeko Kultura Sailera jo behar da.

Balleta

Gala Ballet eskolako Gala Nieto izango da irakaslea. 5-14 urte bitartekoentzako ikastaroa da. Urritik ekainera, astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean izango dira eskolak. Ordutegia taldeen arabera antolatuko da.

Organiza: Gala Ballet eskola. Profesora: Gala Nieto. Comienzo: 1 de octubre. Duración: de octubre a junio. Edad: 5-14 años. Días: Lunes, martes, miércoles y viernes. El horario se organizará según los grupos.

Argazkilaritza

Argizpi Argazkizale Elkarteak, 24 orduko ikastaroa antolatu du, astelehenean ostegunera. Plazak mugatuak dira.

Organiza: Argizpi Argazkizale Elkarteak. Comienzo: 1 de octubre. Duración:

24 horas. Días: Lunes, martes, miércoles y jueves. Plazas limitadas.

Marrazketa eta pintura

Bear Pintura zaletuen elkarteak, haur eta helduentzat antolatu du ikastaroa, urritik ekainera. Jokin Telleria izango da irakaslea. Haurren taldeak, 7-12 urte bitartekoak, astelehenean ostiralera, 17:00etatik 18:00etara eta 17:30etik 18:30era (asteazkenetan bi ordu). Helduek berriaz, astelehenean ostiralera, 15:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:30era (asteazkenetan 4 ordu); ostegunetan 18:30etik 20:30era.

Organiza: Bear pintura zaletuen elkarteak. Profesor: Jokin Telleria. Comienzo: 1 de octubre. 5 de noviembre (nuevos). Duración: de octubre a junio. Grupos: 7-12 años, de lunes a viernes, 17:00-18:00 y 17:30-18:30, 2 horas semanales. Adultos, lunes, martes, miércoles y viernes, 15:00-17:00 y 18:30-20:30; jueves 18:30-20:30, 4 horas semanales.

Zeramika eta esmaltaketa

Buztina Zeramika zaletuen elkarteak an-



Zeramika eta esmaltaketa ikastaroa.

tolatutako ikastaroa, Ione Urainek eta Maite Salutregik emango dute, urritik ekainera, asteazkenetan 2 ordu. Asteartean 15:00etatik 17:00etara eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara. Gazteenzako (11-14 urte) ere 30 orduko Zeramika ikastaroa antolatu dute urrian, asteazkenean.

Organiza: Buztina zeramika zaletuen elkarteak. Profesorak: Ione Urain y Maite Salutregi. Comienzo: 2 de octubre. Duración: de octubre a junio. Clases: 2 horas semanales. Grupos: martes, 15:00-17:00 y jueves, 19:00-21:00. Taller juvenil de cerámica. Comienzo: 3 de octubre. Duración: 30 horas. Edad: 11-14 años. Día de clase: miércoles.

Bertso eskolan izena emateko aukera

2012-2013 ikasturtean Bertso Eskolan parte hartu nahi duten Lehen Hezkuntzako 3. mailatik gorako ikasleek, irailaren 21a baino lehen eman behar dute izena, norberak bere ikastetxean, edo Beasaingo Udaleko kultura eta euskara sailean.

Quienes quieran participar en el curso 2012-13 de la Bertso Eskola, pueden inscribirse antes del día 21 de este mes en su centro educativo o en el servicio de euskara del ayuntamiento.

Banderaren auzia

Donostiako administrazioetako auzien 3. epaitegiak, atzera bota du, 2011ko azaroan herritar baten salaketaren ondorioz (udaletxean, Espainiako banderarik ez jartzeagatik), Espainiako Gobernu ordezkariak jarritako errekerimendua, salaketan «forma aldetik akatsa dagoelako». Udalak pozik hartu du albistea.

El Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Donostia ha desestimado el recurso del delagado de Gobierno de España, sobre la colocación de la bandera española en el ayuntamiento.

Gaztelekua, hilaren 21etik zabalik

Beasaingo Eizuko Gaztelekuak hilaren 21ean hasiko du ikasturtea. Ostegun eta ostiralean (17:00-20:00) eta asteburuetan (16:30-20:30) emango dute zerbitzua. Izena emateko eizugazteleku@hotmail.com helbidera idatzi edo gaztelekura jo behar da.

El Gazteleku Eizuko empezará el curso el día 21 de septiembre. El local estará abierto de jueves a domingo. Para apuntarse hay que mandar un correo al eizugazteleku@hotmail.com.

Bizigune; etxe hutsak alokatzeko

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Bizigune programak, hutsik dauden etxebizitzak alokatzea du helburu; horretarako bitartekari lana egiten dute jabearen eta etxea alokatu nahi duenaren artean.

Bizigune, etxebizitza hutsei beste erabilpen bat eman eta etxebizitzaren arazoari irtenbidea bilatzeko Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako programa bat da. Bi helburu nagusi ditu: batetik, hutsik dauden partikularren etxebizitzak alokairuan jarri eta kudeatzea; eta bestetik, etxe faltan dauden pertsonen etxe bat lortzeko aukera eman eta alokatzea. Horretarako, etxek 9 hilabetez erabili gabe eta bertan bizi ahal izateko baldintzetan egon behar du.

Bizigune programan parte hartzeko, «etxe hutsak dituzten jabeek eskaera egiten diete Eusko Jaurlaritzari, alokairu kudeaketa osoa bere gain har dezan. Horretarako jабegoa aitortzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da, besteak beste. Jarraian teknikari bat joaten da etxeen egoera aztertu eta tasatzera. Ados egonez gero, 5 urtetarako kontratua sinatzen da. Aurrerantzean, Eusko Jaurlaritzak ordezkaturiko du etxe jabea maizterren aurrean», argitu du prozesua Eli Manterola udal teknikariak.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebide programan izena emanda daudenei eskaintzen dizkiete etxe horiek. Maizterriari



Etxebizitza blokeak Beasainen.

bere soldataren %30 baino gehiago ez zaie kobratzen; gainerakoa Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du.

Beasainen dagoeneko 42 etxebizitzek dute Bizigune kontratua eta beste 8 etxebizitza bidean daude. Eli Manterolak emandako datuen arabera, herrian 400 etxebizitza egon litezke Bizigunera bideratu daitezkeenak. «Etxe hutsak gastea besterik ez du jabearentzat, eta las-

ter familiko norbaitentzat beharko ez badu, alokairuan jartzera animatuko nituzke. Pertsona asko dago erosi edo alokairu normalak ordaintzera iritsi ezin dena, eta beraiei aukera bat emango lieke. Elkartasuna da martxan jartzen dena Bizigune programarekin», gaineratu du Manterolak.

El programa Bizigune, impulsado por el Gobierno Vasco, tiene dos objetivos: gestionar y poner en alquiler las viviendas particulares vacías, y dar una oportunidad de conseguir una casa a aquellos que no disponen de una. Para participar en el programa los propietarios de viviendas vacías han de pedir al Gobierno Vasco que se haga cargo de la gestión completa del alquiler.

El contrato dura cinco años. Un vez firmado, el Gobierno Vasco representará al dueño frente a los inquilinos. Las viviendas se ofrecerán a aquellas personas inscritas en las listas de Etxebide. El inquilino pagará hasta el %30 de su sueldo, y lo que resta lo pagará el Gobierno Vasco. Actualmente, este programa cuenta con 42 viviendas en Beasain y pronto serán 8 mas.

Udaltzainek ibilgailu berria ekarri dute, garabi lanak ere egingo dituenak

Udaltzainek ibilgailu berria ekarri zuten uztailean. Aurrekoa zaharkituta gelditzen, eta berria behar zela aprobetxatuta, 4x4 motako auto berria erosi du udalak. Honen berezitasuna, ordea, ibilgailuak atzealdean duen garabia da. Orain arte garabi bat behar zenean kanpoko enpresa bati deitzen zitzaion, baina hemendik aurrera, udaltzainek egin ahal izango dute lan hori. Erretiratutako autoentzat bi biltegi egokitu dituzte; bata, epe luzeko autoentzat, Ittolako industrialdean, eta bestea, epe motzekoa, Urkiola jatetxearen pareko lokalean.

La policía municipal ha adquirido un nuevo vehículo. El anterior ya tenía unos años y empezaba a dar problemas. Aprovechando el cambio, el ayuntamiento ha comprado un 4x4, que lleva una grua en la parte trasera. Hasta ahora, se llamaba a una empresa privada, pero a partir de ahora, los propios agentes podrán hacer ese trabajo. Se han acondicionado dos locales para los coches retirados, uno en Ittola, para larga estancia, y otro frente al restaurante Urkiola.



Udaltzainen garabi berria.



Dantzarien eguna

9 igandea

12:00 Udak ordezkariek udaleko bandera entregatuko du. Jarraian, segizioa udaltxetetik Igartzara.

12:30 Ezpata dantzen saioa Igartzan, Puebla de Guzmaneko (Huelva) ezpata dantzariekin batera.

14:30 Bazkaria Igartza Jauregian.

17:30 Erromeria Arrabots taldearekin.

Iraila

8 larunbata

18:00 Meza eta erromeria, txistulariek lagunduta, Loinazko Ama Birjinaren ermitan.

13 osteguna

19:00 Igartza beka. 15. sari banaketa, Igartza Jauregian.

14tik 16ra

Beasain Kirol Elkarteak antolatuta: II. Carling Football Fest.

16 igandea

08:00 Mendi irteera: Besaide. Aizkorri Mendizale elkarte.

20 osteguna

19:00 Udak euskaltegiaren 25. urteurrenoko ekitaldi nagusia eta ikastaroen aurkezpena, Igartzan.

21 ostirala

22:00 Behaketa astronomikoa Iltargi taldearekin, Igartzako zubi inguruan.

Erakusketak

Irailaren 28tik urriaren 7ra: Beningo argazki erakusketaren inaugurazioa, Herriak Elkarlaneanek antolatuta, Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

Auzoetako jaiak: Igartza-Loinatz

7 ostirala

19:00 Txupinazoa, buruhandi eta txistulariekin.

20:00 V. Ardo dastaketa.

20:30 Kale animazioa.

23:00 Kontzertuak Gaztetxean.

8 larunbata

10:00 I. Basket 3x3 txapelketa.

16:00 XXII. Mus txapelketa.

17:30 IV. Patata tortilla lehiaketa.

19:00 Mozorroturik poteoa Koskola txarangarekin.

21:00 Herri afaria, mozorroturik.

22:30 Dantzaldia Imanol Djrekin.

23:00 Kontzertuak Gaztetxean.

24:00 VI. Txapel jaurtiketa txapelketa.

9 igandea

11:00 Paella erraldoiaren prestaketa.

12:30 Laguntasuna Errondaila.

14:15 Herri bazkaria: paella erraldoia.

17:00 Izan-lzar abesbatza.

Lazkaibar

23 igandea

10:00 Goiz eresia. auzoan.

12:00 Hildako auzotarren aldeko meza Andre Maria zeruratuaren elizan.

14:30 Senidetasun bazkaria. Ondoren Beasaingo txistularien saioa.

24 astelehena

18:00 Jai batzordeko ordezkariek Arangoiti egoitzara joango dira.

20:00 Poteo herrikoja. Ondoren afari-merienda Beti-Bizi elkarteetan. Segidan mus partida jokatuko dute.



Buruhandiak ibiliko dira auzoetako jaietan.

Arana-Bideluze

21 ostirala

18:00 Buruhandiak eta txistulariak.

20:00 Txokolate jana umeentzat.

20:30 Disko festa.

23:00 Disko festa.

22 larunbata

17:30 Euskarakea eta Diskotxiki.

24:00 Kontzertua: Mystery train taldea.

23 igandea

12:00 Toka erretiratuentzat.

12:00 Puzgarriak eta herri kirolak.

16:30 Puzgarriak.

18:00 Haurrentzako ikuskizuna: Tatxin Taxan... eta jarri dantzan.

19:00 Luntxa Aitzgorri Mendizale Elkarteetan.

beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala

Helbidea: Loinazko San Martin plaza

Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefonoa: 943 02 80 50

Webgunea: www.beasain.org

Diseinua: Bidera Zerbitzuak